



# BEGI KRITIKOZ

## Eztabaida-jarduera

### Proposamena:

Azterketa- eta eztabaida-jarduera egiteko, ikasleak talde txikitan banatuko dira, eta tabako-enpresek beren produktu berrietan (zigarreta elektronikoak, tabako berotuko produktuak...) erabilitako irudi batzuk aztertuko dituzte.

**Gomendatutako hartzailak:** DBH 1 eta 2

### Behar den materiala:

- [Power point aurkezpena: "Kontsumo berriei buruzko irudiak" – Lehen zatia](#)
- [Power point aurkezpena: "Kontsumo berriei buruzko irudiak" – Bigarren zatia](#)

### Material lagungarria:

- [PowerPoint aurkezpena: «Tabakoa kontsumitzeko modu berriak»](#)
- [Informazio-dokumentuak: «Tabakoa kontsumitzeko modu berriak»](#)

### Helburua::

- Publizitatea egiten duten produktuen xede-publikoa ezagutzea.
- Zentzu kritikoz aztertzea tabako-industriak gizarteari helarazten dizkion publizitate-mezuak.
- Tabako-industriak tabako-kontsumoak pertsonentzat eta gizartearentzat dituen ondorio kaltegarriak nola mozorrotzen dituen antzematen ikastea.

## Begi kritikoz

Tabako-enpresek diru asko bideratzen dute publizitatera, tabakoa onarpenaren eta arrakasta sozialaren ikur gisa aurkezteko.

Azken urteotan, erretzaile kopuruak behera egin ahala, tabakoaren eta erretzearen irudiak gero eta onarpen sozial txikiagoa izan du. Hala ere, tabako-enpresek beren produktuak –bestek beste, zigarreta elektronikoak eta tabako berotuko produktuak– kontsumituko dituzten pertsonak bilatzen jarraitzen dute.

Nerabegaroko garapen ebolutiboaren ezaugarri nagusietako bat errealitatearen zentzu kritikoa da. Publizitate-irudiak aztertzeak zentzu kritiko hori pizten du, eta tabakoak pertsonen bizitzan eta gizartean dituen ondorio negatiboez eta industriak irudi horiek mozorrotu nahi dituen moduaz jabetzeko balio du.

## Jardueraren garapena:

### 1. zatia

Ikasleei sarrerako azalpen txiki bat eman, eta talde txikitara banatu, publizitate-irudiak azter ditzaten.

Talde bakoitzak irudi batzuk jasotzen ditu edo "**Irudi berriak - 1. blokea**" aurkezpena erakusten da gela osoan. Aztertu eta gazteengan duen eraginari buruz eztabaidatu beharko dute.

Lehenik, tabako-produktuak ezkatatuta dauden "1.blokea" irudiak erakusten dira. Jarraian, ikasleekin hitz egin honako gai hauei buruz:

- Zuen ustez, zein produktu ari dira irudi horien publizitatea egiten?
- Nori dago zuzenduta?
- Zer ideia transmititzen dute?
- Zer balore erakusten ditu?
- Zer une daude lotuta irudiekin?
- Nola laguntzen dio alderdi bisualak mezuaren transmisioari?

Taldean aztertu ondoren, ideia nagusiak bateratuko dituzte.

Bigarrenik, "**2. blokeko**" irudiak agertzen dira. Bigarren bloke honetan, aurreko irudiak bistaratzen dira, baina horiei lotutako zer produktu erakusten da: tabakoa kontsumitzeko gailu berriak (zigarro elektronikoak eta tabako berotuko produktuak).

Irudiak osorik ikusi ondoren, ikasleen artean komentatu lehen irudi-blokean planteatutako galderari emandako erantzunak.

Taldean aztertu ondoren, ikasleek bildutako ideia nagusiak bateratuko dituzte.

### 2. Zatia

Jarraian, "**Kontsumo Berrien Irudiak - 2. zatia**" aurkezpena bistaratuko da.

Irudiek transmititzen dituzten hainbat alderdiri buruz hitz egitea ikasleekin. Adibidez, zein publikori zuzentzen zaizkion produktu horiek, adinari, sexuari, zein uneri eta abarri dagokienez.